

ERAKUSLEIHOEN ARABAKO X. LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Helburua:

Helburua erakusleihoak apaintzeko merkatarien gogoia piztea da, horrek komertzioa dinamizatu baitezake.

2. Izena ematea:

Arabako **merkataritza establezimendu guztiek** parte hartu ahal dute. Lehiaketan parte hartzeko, udaberrian erakusleiho bat eta udazkenean beste bat egin beharko dira.

Bazkideentzat izen-ematea doakoa izango da; bazkide ez direnek 40 € + BEZa ordaindu behar dute. Izen-emateak **apirilaren 28a** baino lehen egin beharko dira. Horretarako, 945 12 35 00 telefonora deitu edo posta elektronikoko bat bidali behar duzu proyectos@aenkomer.com helbidera, izena emateko fitxa beteta eta, hala badagokio, egindako inskripzio-kuotaren ordainagiriarekin batera.

3. Argazkien bidalketa:

Establezimendu guztiek lehiaketara aurkezten diren erakusleihoen argazki bat bidali beharko dute proyectos@aenkomer.com helbidera. Udaberriko erakusleihoaren **argazia maiatzaren 9a baino lehen** bidali beharko da, eta udazkeneko erakusleihoarena irailaren 26a baino lehen. AENKOMERrek eskubidea izango du hautatzen diren espazioen argazkiak bere euskarri komunikatiboetan erabiltzeko.

4. Erakusleihoen erakusketa:

Udaberriko erakusleihoak **maiatzaren 10etik 26ra izango dira ikusgai** eta udazkenekoak **irailaren 26tik urriaren 13ra**. Tarte horietan, erakusleihoak argitaztuak egongo dira 10:00etatik 22:00etara, eta lehiaketaren bereizgarria jendaurrean ikusgai jarri beharko da.

5. Gaia:

Gaia **udaberrian eta udazkenean** girotua egongo da. Baita, establezimenduak saltzen dituen produktuak edo artikuluak erakutsi beharko dira ere.

6. Sarien zerrenda:

Saritutako establezimenduak, **udaberriko** erakusleihoen balorazioak eta **udazkeneko** erakusleihoen balorazioak batuta, **batez besteko puntuazio** handiena lortzen dutenak izango dira. Honako kategoria hauetan:

BOZKETA TEKNIKOA

Lehen saria: 800 € + plaka

Bigarren saria: 500 € + plaka

Erakusleiho birtual onenaren saria: 300€ + plaka

Erakusleihoan euskara ondoen erabiltzeagatik saria: 300 € + plaka

HERRITARREN BOZKETA

Lehen saria: 250 € + plaka

Sari horiez gain, **400 €** emango zaizkio **udaberrian puntuazio tekniko** handiena lortu duen erakusleihoari, eta **400 € udazkenean puntuazio tekniko** handiena lortu duen erakusleihoari.

*Balorazio teknikoan hainbat establezimenduren arteko berdinketa izanez gero, epaileek establezimendu horiek berriro ere puntuatuko dituzte

7. Herri-bozketaren funtzionamendua:

Herri-bozketa **AENKOMERen Facebookeko orrian** gaituko den **esteka** baten bidez egingo da. Esteka hau erakusleiho parte-hartzaile guztien argazkiekin sortuko den album batean agertuko da.

Herri-saria bozketa teknikoan lehenengo 15 sailkatuen artean boto gehien jasotzen dituen establezimenduari emango zaio, udaberrian eta udazkenean jasotakoak gehituta. Botoa emateko **epea maiatzaren 10etik 26ra eta irailaren 26tik urriaren 13ra bitartekoa izango da.**

8. Epaimahaia eta balorazio irizpideak:

AENKOMERek izendatuko du epaimahaia, eta erakusleihoetan diharduten profesionalak osatuko dute, erakusleihoak banan-banan baloratuz. Sarituak epaimahaiko kide guztien batez besteko baloraziorik onena lortzen dutenak izango dira. Epaimahai teknikoak honako alderdi hauek baloratuko ditu, garrantzi desberdinen arabera ordenatuta:

1. Sormena eta originaltasuna	1 - 10 puntu
2. Produktua nola erakusten den	1 - 10 puntu
3. Argiztapena	1 - 10 puntu
4. Kromatistika	1 - 10 puntu
5. Lanketa eta akabera	1 - 10 puntu
6. Bai Euskarari ziurtagiria izateagatik ondoren erabiltzeagatik" ematen den sariaren kasuan balioetsiko da soilik)	5 puntu (* "Erakusleihoan euskara

9. Lehiaketa honetan parte hartzeak baldintza hauek onartzea dakar berekin.

10. Antolatzailea: AENKOMER Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako enpresariak
Laguntzaileak: Arabako Foru Aldundia, Diario de Noticias de Álava eta Bai Euskarari Elkartea.